



Arartekoaren ebazpena, 2011ko martxoaren 10ekoa. Horren bidez, ikasleak onartzeko ezaugarri garrantzitsu gisa premutasuna lehenesten duen irizpidea aplikatzeari buruzko jarduera amaitzen da.

Aurrekariak

1. Familia batek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honen aurrean ikastetxe publiko batean ikasleak onartzeko egindako prozesuan seme bikietako bat baztertu egin zutelako, izan ere, zentroan premutasuna lehenesten duen irizpidea aplikatu zuten Eskola-kontseiluak hala erabakita. Familiaren ustez, irizpide horrek ez du justifikazio objektibo ez arrazoiturik, beraz, hori aplikatzea neurri diskriminatzailetzat har daiteke.
2. Kexa bideratzea onartu ondoren, erakunde honek ikastetxe horretan ikasleak onartzeko jarraitzen den prozedurari buruzko informazioa eskatu zien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunei.

Gauzatzeke zegoen lankidetzaren nahitaezko errekerimendua egin ondoren, azkenean, hezkuntza arloko arduradunek bidali diote erantzun txostena erakunde honi eta bertan, besteak beste, ondoko adierazpenak jasotzen dira:

- *“()LHI da bi lerroko ikastetxe publikoa (bi talde mailako).*
- *Eskabideen kopurua (61) eskola-postu libreena baino handiagoa gertatu zenez gero (46 2 urteko mailan), ikastetxeak arautegia aplikatu zuen:*
- *Martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua (08-3-6ko EHAA), akatsen zuzenketa (08-3-31ko EHAA).*
- *2009ko abenduaren 15eko Agindua (10- 1 -27ko EHAA).*

Onartzeko Aginduak Hamabosgarren Instrukzioan hauxe jasotzen du:

Hamabosgarrena.- *Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak askatasunez erabakitako beste alderdi batzuei buruzko baremo-atala aplikatzeko arauak (...).*

- 6.- *Ezingo da irizpide diskriminatzailek ezarri atal honetan; hau da, ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialean oinarritutako irizpide diskriminatzailek ezarri; halaber, ezingo da puntuaziorik eman, berariaz deitutako proba edo azterketen emaitzetara baldintzatuta. (...)*





- *Egiaztatu da ()LHIk gauzatutako prozesua, eta prozesu hori bat dator ikasleak onartzeko araudiarekin. Ikastetxeko Eskola-kontseiluak 2 puntu eman dizkie honako ezaugarriei:*
- *Seme edo alaba zaharrena izatea.*
- *Ikasle ohi baten semea edo alaba izatea.*
- *() LHik egindako prozesua ikasleak onartzeko, 2010/2011 ikasturterako, berrikusi egin zen zio horrexengatik aurkeztutako Gora Jotzeko Helegite baten aurrean*

Helegitea ukatu egin zen honako hitz hauekin: "zuk alegatutako zioak ez dauka babesik onartzeko prozesua erregulatzen duen arautegian, eta ez da gertatu batere "diskriminazio"rik, baizik eta soil-soilik aplikatu da horretarako indarrean dagoen arautegia ".

3. Egiaztatu ahal izan dugunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez du aztertu ez balioetsi ustezko diskriminaziorik ote dagoen familia erreklamatzailerak diskriminatzailetzat jotzen duen premutasunari buruzko irizpide horretan; aitzitik, berretsi baino ez du egin ikastetxe horretan ikasleak onartzeko jarraituriko prozesuan horretarako onetsitako araudia aplikatu dela besterik gabe.

Oinarriak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren (martxoaren 6ko 47. EHAA) 21. artikulua ikasleak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan onartzeko irizpideei buruzkoa da, eta bertan xedatzen da plaza nahikorik ez badago ikastetxeko organo eskudunak garrantzitsutzat hartzen dituen ezaugarrien arabera irizpideak aplika daitezkeela beste irizpide batzuen artean. Ezaugarri horiek irizpide objektiboek jarraituz ezarri behar dira, eta eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen argitaratu.

Modu zehatzagoan, 2010-2011 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesurako jarraibideak ezarri zituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 15eko Aginduak, Eskola-kontseiluak libreki erabakitako irizpideei dagokienean, xedatzen du irizpide guztiak publikoak eta objektiboak izan behar direla, eta ezin dutela jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik edo bestelako edozein baldintza edo egoera pertsonal zein sozialengatik diskriminatu.





2. Onartzen da, beraz, ikastetxeetako eskola-kontseiluek aplikazio-araudian aurrez ezarritakoez bestelako ezaugarri garrantzitsuetan oinarritutako onarpen-irizpideak ezar ditzaketela. Hala ere, berdintasunaren printzipioaren inguruan dagoen konstituzio-doktrina sendoa aipatzeko momentua da.

Auzitegi Konstituzionalak adierazi izan du berdintasun printzipioak ez duela esan nahi kasu guztietan tratamendu legal bera eman behar denik garrantzi juridikodun edozein elementu bereizle alde batera utzita, beraz, gai jakin baten araudiari dagokionez desberdintasun legalak egoteak ez du beti esan nahi Konstituzioaren (EK) 14. artikuluan jasotako mandatua urratzen denik; hori bakarrik gertatzen da berdintzat jo daitezkeen egoeretan ezberdintasunen bat sartzen bada horretarako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik eman eta izan gabe. Hitz batez, artikulua arbitrariotzat edo arrazoizko justifikaziorik gabekotzat har daitezkeen elementu bereizleak erabiltzea galarazten du, edo beste modu batean esanda, irizpide objektibo eta arrazoizkoetan oinarrituta eta orokorrean onartutako irizpide edo balio-judizioen arabera ezarrita ez daudelako amarrutsuak edo arrazoirik gabeak diren desberdintasunak debekatzen ditu.

Bestalde, Epaitegi Konstituzionalak adierazi du, baita ere, gure Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen den debekua ezin dela modu zurrunez ulertu, arauaren egileak edo hura interpretatzen duen pertsonak egoera pertsonalak inoiz kontuan hartu ezin izateko moduan alegia, baldin eta egoera horiek garrantzitsuak badira arauak lortu nahi duen helburu legitimoa erdiesteko eta baldin eta diskriminatzaileak ez badira. Horrenbestez, kasu honetan erabakigarria dena zera da, lortu nahi den helbururako jaiotza garrantzitsua den edo ez erabakitzea.

3. Egia da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunek ez dutela premutasunari buruzko irizpide edo ezaugarri garrantzitsu horren inguruan egindako narrioa aztertu, eta hura aplikatzea berma dezakeen justifikazio objektibo eta arrazoizkoari buruzko edozein azalpen ematea saihestu dutela. Hala ere, jarrera saiheskor horrek beharrezko justifikazio horren gabeziari erantzun diezaioke, hain zuzen.

Ikasleak onartzeko prozesuetan aplikatu ohi diren gainerako lehenetsunak onarpen-irizpideak (familiaren errenta, etxebizitzaren gertutasuna, neba-arrebak izatea, eta abar) kontuan hartuz gero, ez da zaila ikasleak beren inguruan eskolatzeko, bateratze-premiak betetzeko, baliabide gutxiago dituzten edo babes handiagoa behar duten familiei zailtasunak ekiditeko eta bestelako helburuz ezartzen diren irizpideen objektibotasuna eta justifikazioa aurkitzea. Baina premutasuna bera aztertzen hasiz gero, ez dugu aurkitzen eskolatzeari mesede egiteko helburuari lotuta seme edo alaba zaharrenen eskolatzeko lehenetsuko beharra onartzeko arrazoirik, beraz, egoera hori arbitrariotzat eta, horrenbestez, diskriminatzailetzat hartu behar dugu..





Gainera, uste dugu garrantzitsua dela honako puntu hau gogoan hartzea: Eskola-kontseiluak libreki balioetsi duen egoera hori, hots, premutasuna, onarpen-prozesuan aplikatzeak birtualtasuna ken diezaioke berariazko lege-mandaturuz hala aginduta ikasleen onarpen-prozesuan derrigor kontuan hartu beharreko irizpideetako bati, ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak izateari, hain zuzen. Horrenbestez, nabarmendu behar da premutasuna balioestek merituak kendu diezazkiekeela lehendik matrikulatutako anai-arrebak edukita prozesuan parte hartzen duten ikasleei.

Hori guztia dela eta, azaldutakoa kontuan hartuta, erakunde honek honakoa ondorioztatu du:

Ondorioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eskura dituen bideak erabili behar ditu Erkidegoko herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesuetan, beste irizpide batzuen artean eta Eskola-kontseiluak libreki balioetsitako irizpide garrantzitsu gisa, premutasunaren lehenespena aplikatu ahal izatea ekiditeko.

